

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

2482

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 7koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez ontzat ematen baita «Zumaian ETSren mantentze-eremu berria eraikitzeko proiektua».

ETSk eskatuta, Zumaiaiko udal-mugartean «Euskal Trenbide Sarea» instalatzeko mantentze-eremu berria eraikitzeko proiektua idatzi da.

Zumaiaiko tren-biltegi berria eraiki zenetik, desagertu egin dira ETSren mantentze-lanen eremuan makinak erabiltzen diren kirten trenbideak. Bestalde, errepide bidezko sarbidea erabilgarri ez dagoenez, ezin da materialik biltegitratu edo kargatu pilaketa-eremu horretan.

Aukeratutako kokaleku horretan mantentze-eremu berria proiektatzeko, beharrezkoa da lurrak mugitzea, 3. bidea luzatzea eta «Sagarbide bidetik» partzela berrirako sarbidea egikaritzea.

Eraikuntza-proiektuaren ETSren mantentze-lanetarako arloak proposatutako mantentze-eremu berri bat egikaritzeko behar diren jarduketak zehazten ditu. Alde horrek ibilgailuentzako sarbidea eta materialak biltzeko eremu bat izango ditu.

Proiektuaren esparrua partzela publiko batera mugatzen da. Haren inguruan daude «Sagarbide bidea» errepidea, ekialdean, eta ETSko bideak, mendebaldean.

Proiektatutako obrak igarotze- eta pilatze-gune bat eta bi mantentze-bide ditu, bata elektrifikatua eta bestea ez.

Proiektua egikaritzeko aurrekontua milioi bat hogeita mila seiehun eta berrogeita hamaika euro eta bi zentimo (1.020.651,02 euro) da. Horrek esan nahi du lizitaziorako oinarritzko aurrekontua milioi bat laurehun eta hirurogeita bederatzita mila seiehun eta hogeita hamabost euro eta berrogei zentimo (1.469.635,40 euro) dela, BEZa barne; eta Administrazioak horren berri izateko aurrekontua: milioi bat berrehun eta hamalau mila bostehun eta hirurogeita hamalau euro eta hirurogeita hamaika zentimo (1.214.574,71 euro) BEZa barne.

Obrak egiteko sei (6) hilabeteko epea aurreikusten da.

Euskal Trenbide Sareko (ETS) Zerbitzu Teknikoek egiaztatu dute proiektu honek bere xedeari erantzuten diola eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrek eskatutako baldintzak betetzen dituela, kontrata bidez egikaritzeko behar diren alderdi nahikoak jasotzen baititu; halaber maila formalean berrikusi du proiektua eta berresten du bete egiten duela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa, maila formalean, beharrezko dokumentuak eta indarrean dagoen araudia sartzeari dagokionez, edukiari, sinadurei eta alderdi formalei, beharrezko kalkulu-oinarri eta -hipotesiei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 233.1 artikuluan zerrendatutako edukiari dagokienez.

Organo honek eskumena du trenbide sareko proiektuak egiteko eta onartzeko, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Zumaian ETSren mantentze-eremu berria eraikitze proiektua» onartzea. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, BEZa barne, milioi bat laurehun eta hirurogeita bederatzi mila seiehun eta hogeita hamabost euro eta berrogei zentimo (1.469.635,40 euro) da, eta obrak egiteko epea SEI (6) hilabetekoa izango dela aurreikusi da.

Bigarrena.– Eraikuntza proiektu hau onartzeak berekin dakar obrak onura publikokoak edo interes sozialekoak direla deklaratzeko, okupatzeko beharra adieraztea eta dagokion eraikuntza proiektuaren beraren eranskinean zerrendatuta dauden erasandako ondasunak eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla adieraztea.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaioke Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Idazki hori organo honi edo Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari bidali beharko zaio.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien aretoan, hargatik aldez aurretik errekerimendua egitea eragotzi gabe, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 7a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.